

Idazle eta marrazkilaria: **LEO LIONNI**

Itzulpena: **KOLDO IZAGIRRE**

Kartonez koadernatua. 22x27,5 cm.

36 orrialde. Irudiak koloretan.

Eskuragarri:

-Gaztelera: "Nadarín". Libros para Soñar. ISBN 978-84-96388-60-4

-Galegoz: "Nadarín". Tras os Montes. ISBN 978-84-8464-628-0

-Katalanez: "Neda-que-neda". Kalandraka. ISBN 978-84-8464-629-7


-Euskaraz: "Igeritz". Amets egiteko Liburuak. ISBN 978-84-8464-630-3

-Portugesez: "Nadadorzinho". Livros para Sonhar. ISBN 978-972-8781-59-0

Prezioa: 16,50 €

IGERITZ

Itsasoko zoko galdu batean arrain sarda handia bizi zen zoriontsu. Denak gorriak ziren. Baina bazen bat beltza, muskuilu eskola bezain beltza. Sedineek baino hobeto egiten zuen igeri gainera. Igeritz esaten zioten.



Igeritzen historiak, Leo Lionniren liburu guztiek bezala, bizitzari buruzkoak ikastera eta hausnartzera eragiten gaitu. Bestelakoa izatearen balioa eta – kulturaz edo itxuraz- gainerakoon ezaugarriak ez dauzkanari zor zaion begiramena, munduko haur literaturan klasikoa den ipuin honen lehen orrialdeetan ageri dira nabarmen.

Are gehiago, geure moztasunei gain hartzea, azal litezkeen aurkakoak arren geure inguruaz gozatzeko nahimena eta hurkoarekiko elkartasuna ere hortxe daude islaturik estetika ederreko eta iradokizun indar handiko esaldi laburreko ipuin honetan. Eta esaten zaigun guztiaren ikur bezala, mezu haxe: batasunak indarra dakar.

Aipagarria da halaber Leo Lionnik 1963an argitaratu zuen lan honetarako eginiko hautu estetikoak, gaur egun guztiz erakargarria izaten jarraitzen duena. "Kolorez zikintzea" esan izan zaion teknikaz, higidura handiko mundua sortzen du, aberastasun kromatiko handikoa.

LEO LIONNI

(Amsterdam, Herbehereak, 1910-Toscana, Italia, 1999)

LEO LIONNI giro artistikoan hazi zen –ama operako kantaria zuen eta osaba bat, Piet, oso emana pinturari, bildumak osatzeraino- eta oso gazterik jakin zuen horixe izango zela bere bizibidea. Baina ekonomiako ikasketak egin zituen hala ere.

Burutu zuen haurrentzako lehen liburua oso gerora azalduko zen, oharkabean bezala, tren bidaia batean bilobak entretenitzearren kolorezko papertxoak hartuta istorio bat kontari hasi zenean: *Horixka eta Urdintxo*. Mundu osoko irakurleek eta kritika adituak biziki eskertuko zuten zerrenda luze bateko

aurrenekoa izan zen, berrogei titulutik gora sortu baitzituen Lionnik. Eskuetan daukazun honetaz gainera, Kalandrakak *Frederick* izenekoa ere argitaratua du euskaraz.

Eskulturan, diseinuan, margo eta irudigintzan egin zituen lanek Amerikako Arte Grafikoen Institutuaren Urrezko Domina ekarri zioten 1984an.

Milanera jo zuen 1931ean eta han hasi zituen diseinu grafikoarekikoak. Ameriketara joan zen 1939an, eta publizitate agentzia batean egin zuen lan, Filadelfian, arte zuzendari moduan. Gero Olivetti Corporation erakundean jardun zuen eta *Fortune* aldizkarian. Lionniren margoak munduan barrena ibili ziren ikusgarri, New Yorketik Tokioraino. Berak esana da: "Zelanbait, nola edo hala, arteak haurtzaroko sentimenduak islatzen ditu beti".

- **Gaia:** bestelakoa izatea, batasunaren indarra, oinazeari eta beldurrari gain hartzea.
- **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
- **Aipagarri:** haur literaturan klasikoa da obra hau, eta estetika berezikoa. KALANDRAKAK editatua dauka euskaraz egile honen *Frederick* ere.

